

## Zer da gatazken ebazpenei bideratutako Pedagogia Sistemikoa?

Eskolako Pedagogia Sistemikoa Euskal Herrian, euskal hezkuntza erakundeetan eman ziren fundamentu teoriko, errekurtsu eta esperientzia multzo bat bezala sortu zen. Ordenaren printzipioak, behin barne hartuta, kurtsoa egiten duten pertsonen jarrera aldaketa bat posible egiten du eta emaitza harrigarriak ematea ahalbidetzen du gatazken ebazpenetan, bai maila pertsonalean zein profesionalean.

Ordenean oinarritutako ikuspegi honek hezkuntza iraultza bat eman du emaitza bezala geletan ematen diren gatazken prebentzio eta ebazpenetan, hezkuntza errealitatearen pertzepzioan aldaketa bat emanaz behaketa sakon eta espezializatu baten bitartez. Kurtso honetan, ikasleen errealitateei aurre egiteko trebetasunak garatzen ditugu, kontestua kontuan izanda, interbentzio sistemikoak burutuz.

Ezagutza hau ezinbestekoa da bizitza profesionalari arrakastaz aurre egiteko; hori da Pedagogia Sistemikoaren helburua. Berezko mundu sistemiko batean bizi gara, beraz, hezitzaileok ezagutza sistemikorantz bideratutako aldaketa egitea ezinbestekoa da gure bizitzak eta hurrengo belaunaldienak arrakastaz zuzendu ahal izateko.



EUSKAL HERRIKO  
Pedagogia  
Sistemikoaren  
Eskola

### PLATAFORMAK

Bideokonferentzien ZOOM sistema erabiliko da eta google classroom zerbitzua, dokumentazioa trukatzeko eta gainbegiratzeko lanak entregatzeko.

### ORDUTEGIA ASTEBURUETAN

Larunbatetan 10:00etatik 14:00etara  
Igandetan 10:00etatik 14:00etara

### FORMAKUNTZAREN ZENBATEKOA

120€ modulu bakoitza x 9 modulu = 1.080€

### ORDAINKETA EGITEKO ERA

Kurtsoaren ordainketa 3 kuotetan egingo da:

1. ordainketa: 360€ izen ematean hurrengo kontuan  
EUSKADIKO KUTXA ES18 3035 0064 24 0640062150  
(Izen-abizenak zehaztu).
2. ordainketa: 2020ko azaroak 30 baino lehen
3. ordainketa: 2021eko otsailak 28 baino lehen

### TITULAZIOA

Eskolak ESKOLA EREMUKO PEDAGOGIA SISTEMIKOAREN ON-LINE KURTSAKO diploma bat emango die 9 moduluak eta eskatutako lanak arrakastaz betetzen dituztenei. Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailak HOMOLOGATUTAKO IKASTAROAK

### INFORMAZIOA ETA INSKRIPZIOAK

Izen-emate formularioa bete hurrengo web orrian:

[www.pedagogiasistemikoa.eus](http://www.pedagogiasistemikoa.eus)

1. ordainketa egin eta gero (360€) edo idatzi  
[info@pedagogiasistemikoa.eus](mailto:info@pedagogiasistemikoa.eus)

Plazak mugatuak dira.

Gaztelaniaz ere idatz dezakezue:

[info@escuelasistemica.com](mailto:info@escuelasistemica.com)



HOMOLOGATUTAKO  
IKASTAROAK

PEDAGOGIA  
SISTEMIKOAREN  
ON-LINE KURTSOA  
ESKOLA  
EREMUAN

2020-2021

1. PROMOZIOA EUSKARAZ

ZUZENDARITZA ETA EDUKI  
PEDAGOGIKOAK:  
ITZIAR AGUIRRE ARRINDA

## KURTSOKO PROGRAMA 2020-2021

**I Modulua :** urriak 17/18 / N. Martínez y A. Regillaga

Pedagogia Sistemikoaren oinarriko funtsezko.

**II Modulua:** azaroak 14/15 / Iñaki Sánchez

Kide izatearen zentzua eta haien inplikazioa ikasgelan.

**III Modulua:** abenduak 12/13 / Oihana Lujanbio

Autoritate sistemiko baten funtzio eta ezaugarriak hezkuntza-sisteman.

**IV Modulua:** urtarrilak 16/17 / Iñaki Sánchez

Oreka sistemikoa. Laguntzaren ordenak.

**V Modulua:** otsailak 13/14 / Lorea Unamuno

Esku-hartze sistemikoaren protokoloa eta Tresna Metodologikoak: Ipuin sistemikoa, marrazkien irakurketa eta esku-hartzea panpinekin.

**VI Modulua:** martxoak 13/14 / N. Martínez y A. Regillaga

Adimen emozionalaren eskumenak. Hezkuntza-arloko dola protokoloa.

**VII Modulua:** apirilak 17/18 / Oihana Lujanbio

Elkarrizketa protokoloa familiekin. Komunikaziorako gaitasunak.

**VIII Modulua:** maiatzak 15/16 / Lorea Unamuno

Paradigma sistemikoa hezkuntzan.

**IX Modulua:** ekainak 19/20 / Ines Carcoba

Pedagogia Sistemikoaren proiektu eta esperientziak gelan.

**Kurtsoan zehar egin beharreko lanak:**

Ikasleek emandako modulu bakoitzeko, esperientzia pedagogikoetan oinarritutako lan praktikoak egin beharko dituzte, eta lantokian betetzen duten funtzioaren azterketa sistemikoa egingo dute talde-lanean. Lan praktikoak gazteleraz aurkeztu behar dira. Itziar Aguirrek, eskolako zuzendariak, gainbegiratuko ditu eta beharrezkoa bada, banakako tutoretzak egin daitezke berarekin, horiek ere gazteleraz.

**Nori zuzendua:**

Lanean ari diren Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko irakasleak.

**II. MAILA egiteko aukera:**

Ikasleek eskolako testuingurukoko pedagogia sistemikoaren prestakuntzarekin jarraitu ahal izango dute bigarren maila batekin. Hots, Tresna Metodologikoen Ikastaroarekin on line modalitatean edo aurrez aurreko modalitatean Donostian.

Tresna Metodologikoen kurtso honetan sakonduko da: panpinen teknika, ipuin sistemikoa, familien marrazkien irakurketa, genograma, haurren ekintzaren sentzua eta familiekin elkarrizketa.

Informazio gehiago: [info@escuelasistemica.com](mailto:info@escuelasistemica.com)



## Zuzendaritza eta eduki pedagogikoak:

**ITZIAR AGUIRRE ARRINDA**

Psikologia Klinikoko Lizentziatua. Gipuzkoako Foru Aldundiko IKASMINA hezkuntza emozionalako proiektuan formatzailea. Bizkaiko Foru Aldundiko Adimen emozionalako kurtsoetan formatzailea. Pedagogia Sistemikoan aitzindaria Euskal Herrian EHPSEren fundatzaile eta zuzendaria.

## Formatzaileak:

**IÑAKI SANCHEZ**

Magisteritzako Giza Zientziak eta Euskal Filologia espezialitateetan diplomata. Antropologia Soziokulturalean lizentziatua.

**NEREA MARTINEZ**

Ingeleseko irakaslea. Haur eta Lehen Hezkuntza (EHU). Lehen Hezkuntzako zentro batean 4 urtetako esperientzia zuzendari bezala. Pedagogia Sistemikoan Masterra.

**AMAIA REGILLAGA**

Psikopedagogian Lizentziatua. Haur Hezkuntzako irakaslea. Pedagogia Sistemikoan Masterra. Gaur egun zuzendaritza taldeko kidea hezkuntza zentro batean.

**OIHANA LUJANBIO**

Euskal Hizkuntzalaritza eta Filologian doktorea (UPV/EHU). Euskal soziolinguistikaren arloan ikerketan aritua. Gaur egun Bigarren Hezkuntzan euskara irakaslea.

**LOREA UNAMUNO**

Masterra Euskal Hizkuntzalaritza eta Filologian (EHU) eta Irakasleen Prestakuntza (VIU). Bilboko Hezkuntza Fakultateko irakaslea.

**INES CARCOBA**

Arte Ederretan lizentzia: Diseinu Grafikoa berezitasuna. UPV-EHU. Leioa. Pedagogia Sistemikoan Masterra



EUSKAL HERRIKO  
Pedagogia  
Sistemikoaren  
Eskola